



## 2017KO OTSAILAREN 22KO BILKURAKO AKTA

Organoa: Orendaingo Udaleko Plenoa  
Tokia: Orendaingo udaleko Areto Nagusia  
Deialdia: Lehenengoa  
Hasiera data: 19:00etan  
Amaiera data: 21:00tan

Bertaratuak:

Gorka Egia Arregi. Alkatea  
Miguel Angel Arsuaga Azurmendi. Zinegotzia  
Ibon Gonzalez Galarraga  
Eli Garaialde Garmendia

Idazkaria: Nekane Lopetegi Etxeberria

### GAI ZERRENDA

- 1.- 2016-10-27 eta 2017-01-12 eko aktak onartzea.
- 2.- 2017 ekitaldiko aurrekontu orokorra onartzea.
- 3.- Alkatearen ebazpenen berri ematea
  - 2016/18: Goiburu eta udalaren arteko akordioa nitxoen itzulera
  - 2016/19: Basoa ateratzeko baimena Egurangari
  - 2016/20: Tolosako udalaren akordioara atxekitzea Peñaskal fundazioa dela eta.
  - 2016/21: Aparkatzeko txartela onartzea.
  - 2016/22: J.A.G.Q. jauna zenaren arropa botatzea onartzea.
  - 2016/23: Zaingo urak hartzeko baimena Leire Lopez-i.
  - 2016/24 -25-26. Balioanitzeko eraikineko hiru ordainketa 31.447,25€
  - 2017/1: Ordainketa zerrenda onartzea, 1695,30 €
  - 2017/2: Ordainketa zerrenda onartzea, 4092,95 €
  - 2017/3: Ordainketa zerrenda onartzea, 2826,81€
  - 2017/4: Ordainketa zerrenda onartzea, 5262,01 €
  - 2017/5: Ordainketa zerrenda onartzea, 280 €
  - 2017/6: Ordainketa zerrenda onartzea, 853,28 €
  - 2017/7: Ordainketa zerrenda onartzea, 2926,88€
  - 2017/8: DENON ONDARE jaiari 200 € ematea.
  - 2017/9: Nafarroako banderak erostea.
  - 2017/10: Ordainketa zerrenda onartzea, 3211,20€.
  - 2017/11: Euskal Fondoari 20676,47 € ordaintzea.
  - 2017/12: Ordainketa zerrenda onartzea, 525,24e
  - 2017/13: Ordainketa zerrenda onartzea, 303,75€
  - 2017/14: Ordainketa zerrenda onartzea, 548,00 €
- 4.- Jesus M<sup>a</sup> Valgañon Gomezen alegazioa aztertu eta dagokiona erabaki.
- 5.- Korrikaren diru laguntza eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
- 6.- Gure esku dago batzordearen eskaera aztertu eta dagokiona erabaki.
- 7.- OLT tresna Guifinet jabetzakoa, udalak jaso eta Talaiari eskuratu izanaren agiria sinatuaren berri ematea.



8.-Tolosaldeko Giltzarriren manifestua aztertu eta onarpena ematea.

9.-2017eko Trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda onartzea.

10.-Orendain, trasgenikorik gabeko gunea izendatzea onartzea.

11-Galderak eta eskaerak.

## **1.- 2016EKO URRIAREN 27KO ETA 2017EKO URTARRILAREN 12KO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA HALA BALEGOKIO.**

Alkateak aginduta, 2016-10-27 eta 2017-01-12ko bilkuretako aktak mahairatu dira onarpena emateko.

Berlaratuen aldetik inolako zuzenketa edo aldaketa proposamenik agertu ez denez dauden bezala ontzat eman dira.

## **2.- 2017 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA.**

Orendaingo udaleko alkateak, 2017 urteko aurrekontuaren proposamena eta udaleko plantilla organikoaren berri azaltzen du, onarpena eman ahal izateko.

### **GASTUEN EGOERA**

| <u>Kapitulua</u>            | <u>Azalpena</u>                        | <u>Euroak</u>            |
|-----------------------------|--|--------------------------|
| 1                           | Pertsonalaren lansariak .....          | 109.213,00               |
| 2                           | Gastu korronte eta zerb. Gastuak ..... | 84.040,00                |
| 3                           | Gastu Finantzieroa .....               | 1.600,00                 |
| 4                           | Transferentzi korronteak .....         | 50.400,00                |
| 6                           | Inbertsio errealak .....               | 51.727,74                |
| 7                           | Kapital transferentziak .....          | 2.000,00                 |
| 9                           | Pasibo finantzieroa .....              | 11.000,00                |
| <b><u>Guztira .....</u></b> |  | <b><u>309.980,74</u></b> |

### **SARREREN EGOERA**

| <u>Kapitulua</u>            | <u>Azalpena</u>                | <u>Euroak</u>            |
|-----------------------------|--------------------------------|--------------------------|
| 1                           | Zerga zuzenak .....            | 29.400,00                |
| 2                           | Zeharkako zergak .....         | 2.000,00                 |
| 3                           | Tasak eta beste sarrerak ..... | 17.400,00                |
| 4                           | Transferentzi korronteak ..... | 227.305,00               |
| 5                           | Ondare Sarrerak .....          | 6.000,00                 |
| 7                           | Kapital Transferentziak .....  | 27.875,74                |
| <b><u>Guztira .....</u></b> |                                | <b><u>309.980,74</u></b> |



## **TXOSTENA**

### **AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

#### **AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2017 urteko aurrekontua**

#### **FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)**

#### **1- ENTITATE ZERRENDA:**

##### **ORENDAIN**

#### **2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

##### **Aurrekontuen egonkortasuna**

Kredituen aldaketa espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 11.000,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2017rako helburua.

##### **Finantzen iraunkortasuna**

2017ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2016an likidatutako sarrera arrunten % 0,32,73 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2016ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik



eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2016ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2017ko aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2017rako ezarritako helburua magnitude hori %77,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2017rako helburua.

### Gastuaren araua

2016ko eta 2017ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa %0,29 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

| <b>GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA</b> |   |                   |
|---|---|-------------------|
| a1                                      | 2016ko gastu ez finantzarioa<br>(kap:1etik 7ra)       | 360.115           |
| a2                                      | SEC doiketak <sup>[1]</sup>                           | 0,00              |
| a3                                      | 2016ko interesak                                      | 1600,00           |
| a4                                      | Finantzaketa lotua duen gastua<br>2016an              | 111.440,27        |
| a5                                      | menpeko entitateak                                    |                   |
| <b>a=a1+a2-a3-a4-<br/>a5</b>            | <b>2016ko gastu konputagarria</b>                     | <b>247.075,02</b> |
| b1                                      | 2017ko gastu ez finantzarioa<br>(kap:1etik 7ra)       | 298.980,74        |
| b2                                      | SEC doiketak <sup>[2]</sup>                           | 0,00              |
| b3                                      | 2016ko interesak                                      | 1.600,00          |
| b4                                      | Finantzaketa lotua duen gastua<br>2016an              | 49.575,74         |
| b5                                      | Araudian eta kudeaketan egindako<br>aldaketen eragina |                   |
| b6                                      | menpeko entitateak                                    |                   |
| <b>b=b1+b2-b3-<br/>b4-b5</b>            | <b>2017ko gastu konputagarria</b>                     | <b>247.805</b>    |
| <b>c=(b/a-1)*100</b>                    | <b>Gastu konputagarriaren bariazioa<br/>(%tan)</b>    | <b>0,29</b>       |

<sup>[1]</sup> Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

<sup>[2]</sup> Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



2017rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 2,10 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, 2016 ekitaldirako aurrekontuak, bete egiten du gastu araua.

### 3- ONDORIOAK

2017ko aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten ditu, aurrekontuaren egonkortasuna, finantzaren iraukortasuna eta gastu araua.

### PLANTILLA ORGANIKOA

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 127. artikulua xedaturikoa beteaz, Udal honetako plantila organikoaren osaketa argitaratuko da oso osorik jarraian:

#### A) Karrerako funtzionarietako gordetako lanpostuak

- Plazaren izena: Idazkari kontuhartzaitza

Plaza kopurua: 1

Taldea 43 art. 6/89 leg.: B.

Egoera: Betea

#### B) Pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

- Plazaren izena: Oinegitura zerbitzuetako langilea

Plaza kopurua: 1.

Asimilazio taldea: E

Egoera: Betea

- Plazaren izena: Administrari laguntzailea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: D

Egoera: Betea (1)

- Plazaren izena: Gizarte laguntzailea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: B

Egoera: Behin behineko langilearekin bete

- Plazaren izena: Gizarte ongizate zerbitzuetako administrari laguntzailea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: D

Egoera: Hutsik dago

- Plazaren izena: Etxez etxeko langilea

Plaza kopurua: 1

Asimilazio taldea: E

Egoera: Hutsik dago



(1) Lanpostu hauek laboralarekin beteta daude eta iraungitza postuak dira.

## **LANPOSTUEN ZERRENDAK 2016KO EKITALDIA**

### **KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Deitura: Idazkari kontuhartzaitza  
Lanpostu kopurua: 01  
Dedikazioa: %35  
Talde eskala: B  
Adskrizioa azpieskala: Idazkari kontuhartzailea  
Klase: 3  
Exijitutako betebeharrak:  
Hizkuntz eskakizun: 04. Data : 92-06-30  
Exijituriko titulazioa: Z.D, P.Z.D. edo E.Z.D.  
Berarizko osagarria: 18  
Betzeko sistema Habilitatu nazionala

### **LAN PERTSONAL FINKOARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Deitura: Oinegitura zerbitzuetako langilea  
Lanpostu mota: laboral finkoa  
Dedikazioa: %50  
Talde eskala: Administrazio orokorra  
Exijitutako betebeharrak: hizkuntz eskakizuna 02. Data: 92-06-30  
Titulazioa: Eskola egiaztagiria

Deitura: Gizarte laguntzailea  
Lanpostu mota: behin behineko langilegoarekin betea  
Dedikazioa: % 8,05  
Talde eskala: Gizarte Ongizatea  
Exijitutako betebeharrak: hizkuntz eskakizuna 03. Data 96-05-01  
Titulazioa: Gizarte Laguntzaile diplomatura

Deitura: Administrari laguntzailea  
Lanpostu mota: laboral finkoa  
Dedikazioa: %8,05  
Talde eskala: Gizarte ongizatea  
Exijitutako betebeharrak: Hizkuntz eskakizuna 03. Data : 96-05-01  
Titulazioa: L.H. II. maila

Deitura: Administrari laguntzailea



Lanpostu mota: behin betikoa

Dedikazia: %50

Talde eskala: Administrazio orokorra

Exijitutako betebeharrak: Hizkuntz eskakizuna 03. Data: 92-06-30

Titulazioa: L.H. II. Maila

## **BEHIN BEHINEKO LANGILEGOARI ERRESERBATUAK**

Deitura: Etxez etxeko langilea

Lanpostu mota: Behin behinekoa

Dedikazioa:

Talde eskala: Gizarte ongizatea

Titulazioa: Eskola egiaztagiria

Mahaikideek erabaki dute :

**Lehena:** 2017 ekitaldietako aurrekontua eta plantilla organikoari onarpena ematea.

**Bigarrena:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea hamabost egunetako epean. Jendaurreko epea iragan eta alegaziorik tartera ezean, behin betikotzat onartua ematea guzti hau, Udal Erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legeko 112 artikuluko 3. zenbakian, udal entitateen aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauko 15 artikuluko 1 zenbakian eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19. Artikuluko 1. zenbakia ezarritakoa betetzeko ondorioetarako.

### **3.- ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondorengo ebazpenak Alkateak eman dituela jakinarazten da :

2016/18: GOIBURU ETA UDALAREN ARTEKO AKORDIOA NITXOEN ITZULERA

2016/19: BASOA ATERATZEKO BAIMENA EGURANGARI

2016/20: TOLOSAKO UDALAREN AKORDIOARA ATXEKITZEA PEÑASKAL FUNDAZIOA DELA ETA.

2016/21: APARKATZEKO TXARTELA ONARTZEA.

2016/22: J.A.G.Q. JAUNA ZENAREN ARROPA BOTATZEA ONARTZEA.

2016/23: ZAINGO URAK HARTZEKO BAIMENA LEIRE LOPEZ-I.

2016/24 -25-26. BALIOANITZEKO ERAIKINEKO HIRU ORDAINKETA 31.447,25€

2017/1: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 1695,30 €

2017/2: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 4092,95 €

2017/3: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 2826,81€

2017/4: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 5262,01 €

2017/5: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 280 €

2017/6: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 853,28 €



2017/7: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 2926,88€  
2017/8: DENON ONDARE JAIARI 200 € EMATEA.  
2017/9: NAFARROAKO BANDERAK EROSTEA.  
2017/10: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 3211,20€.  
2017/11: EUSKAL FONDOARI 2067,64 € ORDAINTZEA.  
2017/12: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 525,24€  
2017/13: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 303,75€  
2017/14: ORDAINKETA ZERRENDA ONARTZEA, 548,00 €

Mahaikideek, alkatearen ebazpenen berri jakin eta ontzat eman dituzte.

#### **4.- JESUS M<sup>a</sup> VALGAÑON GOMEZEN ALEGAZIOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.**

Orendaingo Udaleko Sarrera Erregistroan, 2017ko otsailaren 2an, JESUS MARIA VALGAÑON GOMEZ jaunak, alegazio bat tartetatu zuen.

Alegazioaren edukia, Kale baserria eraberritu eta bertan bost bizitza egiteko egin den deialdia, indargabetzea eta bere ordeaz, Egaralur izeneko bizitzetan tanteo retraktoa deritzan eskubidea gauzatzea.

Eskaera hau egin ahal izateko, ondorengo oinarriak aipatzen ditu:

**Lehena.-** 2010eko apirilaren 30ean, Egaralur S.L eta udalaren artean UE-6 Eskolapio gunean sortutako exekuzio unitatetik P-A partzela eskuratu zuten, bi heren Egaralurrek eta heren bat Udalak. Dokumentu honetan, aurrez, Jauregui aldea Kooperatiba eta udalaren artean sinatutako akordioak 2007eko maiatzaren 10ekoa eta bere aldaketa jaso zuen 2009eko urriaren 23ekoa hitzarmena jasotzen zuen eta honetaz gain, egindako gastu eta zergen ordainketa ere adostu eta jaso zen.

**Bigarrena.-** Gaur egun, Egaralur S.Lri . sei bizitza bere garajekin saltzeko geratzen zaizkiola, eta Orendaingo Udala egoera honen jakitun dela.

**Hirugarrena.-** Orendaingo Udalak, halere, babes ofizialeko bizitzen prezio berdinean, bost bizitza merkaturatu nahi dituela. Hau da, Egaralur eta udalak hitzarmenean adostutako prezioak baino merkeagoak jartzen direlako Kale baserriaren eraberritze eta garapenean egin nahi diren bizitzak. Udalaren jarrera honek, lehia zintzoaren printzipioak hausten dituela diote.

**Laugarrena.-** Egoera honen aurrean Udalak, bizitza berriak sustatu ordeaz, lehen hitzartutako baldintzak bete eta tanteo eta retraktoa deritzan eskubidea gauzatzea eskatzen du.

Alegazio honen aurrean, Orendaingo Udalak honako adierazpenak egiten ditu:

#### **ADIERAZPENAK**

**LEHENA.-** Orendaingo Udala eta Egaralur S.Lk, Eskolapio gunekoa eremua garatzeko hitzarmena sinatu zuten, Egaralur S.Lk, Jauregi alde kooperatibaren hitzarmeneko eskubide eta betebeharrak bere gain hartu zituen. Hitzarmen honetan, besteak beste, bizitzen prezioak, garajeen prezioak, eta trasteroen prezioak; bizitza hauek eskuratzeko bete beharreko baldintzak; berauek esleitzeko lehentasunak, eta udalaren tanteo retrakto eskubidea jasotzen ziren.

**BIGARRENA:-** Hasera batetan 19 bizitza ziren, eta ondoren 12 bizitza geratu ziren, Udalak, eremuaren heren batetan parte hartu, dagokiona ordaindu eta erabilera anitzeko eraikina exekutatu zuelako. Era honetara, bizitza kopurua murriztu egin zen, guztientzako onuragarriagoa zelako.





**HIRUGARRENA** .- Erosketaren eskritura publikoa 2010eko maiatzaren 12ean egin zen Tolosako Notaritzan.

**LAUGARRENA** .- Eskriturak sinatu ondoren, elkarren arteko lanak 2005 urtean hasi zirela eta 2011 urtea iritsi zela proiektuen exekuzioa, urbanizazioa, bizitzak, balioa anitzeko eraikina e.a. lanen hasera emateko ikusita, Egaralur eta Udalaren artean hitzarmenaren atal batzuek aldatzea erabaki zen 2011eko maiatzaren 13ean Osoko Bilkuran. Eta ondoren, erantsita igortzen den dokumentua sinatu zen bi alderdiek ez zutela inpugnatuko konpromisoa hartuaz.

Aldatu ziren bi atalak hauek izan ziren:

.-Bizitzen izaera pribatua izango zela.

.-Eta behe oineko lokalak, lokal izaera bakarrik izan ordez, bizitza izaera izateko eskubidea izatea, eta ondorioz zegoen zerga likidatu zen.

**BOSTGARRENA** .-2011eko maiatzaren 13ko Bilkuraren erabakia errespetatuaz, eta bizitzen izaera pribatua dela ikusita, Udalak:

.-Eskubidea izan arren, bizitzen salmenta prezioa errespetu den ez du gainbegiratu.

.-Bizitza eskuratu dutenek, hitzartutako akordioetan jasotzen ziren baldintzak betetzen zituzten ere ez da gainbegiratu.

.-Bizitza horietan eguneroko bizitza betekizuna guztiek betetzen duten ere ez da gainbegiratu

Eta, bizitzak pribatuak badira, Udalak tanteo eta retrakto eskubidea gauzatzerik ez du.

**SEIGARRENA** .- Udalak jabetzan duen baserria, Kale baserria hain zuzen ere, duen egoera eta arriskua saihesteagatik irtenbidea bilatzeko lanetan hasi da. Beraz, bizitza hauen prezioa babes ofizialekoa izango dela esatea ez da zuzena, zenbatekoa izango den Udal honek ere ez dakielako oraindik.

**ZAZPIGARRENA**.-Udalak, Egaralur S.L K bere garaian egin zuen apostua eta esfortzua eskertzen dizkio, baina ez du uste Udalak inolako zorrik dionik. Bi alderdien artean hitzartutakoa betetzen eta errespetatzen saiatu izan delako. Gaur egungo garaiak inorentzako gustokoak ez dira, baina Udalak aurrera begiratu behar du eta bere jarduera ahal den egokiena egiten saiatu behar du. Eta hirigunean aurkitzen dugun eraikin honi irtenbidea ematea da helburu, eta bide batez, udalerrian hutsik dauden beste zenbait baserri ere irtenbidea bilatzea da udal honen beste eginkizunetako bat, horretarako Kale eredu sortuz.

**ZORTZIGARRENA**.-Udalak, hirigunean dauden baserrien eraberritze lanak errazteko, Arau subsidiarioen aldaketa egin zuen eta Diputatuen kontseiluak 2016eko maiatzaren 10ean onarpena eman zuen. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016eko maiatzaren 25eko argitara eman zelarik.

**BEDERATZIGARRENA** .-Interes pribatuaren gaineratik, guztiaren interesak babestu eta defendatu behar ditu Udalak, inori lehia egin gabe. Udalaren asmoa ez da inori kaltea egitea, Eta, Kale proiektuarekin, beste baserri hutsei irtenbidea emateko eredu izan nahi du. Ez dakigu hori lortzeko aukera izango den, izanez ere exekuzio proiektua erredaktatzeko dago oraindik.

Guzti honengatik **ERABAKI DA:**

**BAT**.- Egaralurrek egindako eskaera, Udalak egindako deialdia indargabetzea, ez onartzea. Deialdi honen bidez, udal honek jaso dezakeen informazioa, proiektuaren exekuzio erredakziorako eta beste zenbait kasuetarako baliagarria izan daitekeelako.

**BI**.-Udalak, tanteo eta retraktoa gauzatzeko eskubidea izan arren, orain arte ez badu gauzatu, aurrerantzean ere gauzatzeko asmorik ez du. Beraz, ez da udalaren betekizuna, eskubidea baizik. Honetaz gain, Udalak ahalmen ekonomikoa beharko luke, geratzen diren bizitzen tanteo eskubidea gauzatzeko, 1.080.000 euro inguru beharko lirakekeela aurreikusten da. Orendaingo



Udalak, 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa eta 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena bete ezina izango luke, ez geratzen diren bizitza guztiekin, ez eta, bizitza batekin ere, udaleko aurrekontuaren %60 a eramango lukeelako.

**HIRU.-** Udalak bere ondareari irtenbidea bilatu behar dio, eta ez du diru publikoa erabiliko inori kalte egiteko. Udala ez da sustatzaile izango, udalaren helburua bere jabetza kudatzea da.

**LAU.-** Orendaingo Udalak, bere ondaren zaintza eta kudeaketa lanetaz arduratzen jarraitu behar du, eta horretarako aurrez sinaturako hitzarmenak ez duela lotzen esan dezakegu, eta gutxiago, lehia zintzoaren araudia hautsi ere.

**BOST.-** Udala bere aldetik, Egaralur promozioari balio erantsiak egiten ari dela esan dezake. Adibidez, zuntz optikoa izateko eta kontratatzeo eskubidea gauzatzeko aukera eskainiaz. Horretarako, Udalak diru publikoarekin azpiegiturak eta sareak exekutatu ditu.

Honelako herrietan elkarren arteko laguntza eta kolaborazioa nagusitu beharko lirateke, eta ez alderantziz, meatxuak zuzendu edo gailentasuna erakutsi. Udal honek, idatzi honekin sentitu duena hori izan da, meatxua eta gailentasuna.

Orendaingo administrazio publiko txiki honi, Egaralur S.Lk bizi dezakeen ezintasuna bizitzak saltzerakoan udalari egotzi nahi zaio eta udalaren jarduera murriztu eta ezabatu nahi du, bere egoerari irtenbidea bilatu nahiean. Baina udal honen eginkizuna balio publikoari nagusitasuna ematea da, balio pribatu guztiei aukera berdina eskainiaz.

Egoera ekonomikoa hobea izan balitz, eta hasitako asmoak osotasunean gauzaturuta egongo balira, hau da bizitza guztiak salduta, udalarengana inor ez zen zuzenduko ez eskatzera eta ez ematera ere.

Beraz, egoera ekonomikoa guztiok sofritzen dugu, eta Orendaingo Udala ez da Egaralur S.L. rena zuzendu ezer gainbegiratzea eta oztopatzea eta gutxiago mehatxuak eta nagusikeria agertzea.

**SEI.-** Erantzunaren berri Jesus Maria Valgañon Gomez jaunari ematea.

## **5.- KORRIKAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.**

Euskaraz kooperatiba elkarteak, F-95222816 IFK zenbakai duenak, 2017 urtean 20. Korrika antolatu du.

Korrikaren helburua, helduen alfabetatze ardura da eta horren inguruan dirulaguntza eskurtau ahal ziateko antolatzen da egun hau.

Orendaingo Udalak, ERABAKI DU:

1.-2017 urtean Korrikaren laguntzan parte hartzea eta kilometro bat eskurtzea, horretarako 600 eurotako laguntza emanez.

2.-Auten egingo den ibilbidea ikusita, Orendaingo baserriak diren Errota inguruan, Amezketan errepidean, kilometro bat korrikaren lekukoarekin korri egiteko aukera herritarrei eskaintzea.

3.-Euskaraz kooperatiba elkarteari ondorengo kontuan ES70 3035 0072 02 0720037810, Seirehun eurotako dirusarrera egitea.

4.-Erabakiaren berri eskatzaileari ematea.



## **6.- GURE ESKU DAGO BATZORDEAREN ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.**

Tolosadeko "Gure esku dago" lema izenaz, bozketaren gastuei aurre egiteko dirulaguntza eskaera bideratu dela jakitera eman da.

Proposatutako diru eskaera, 0,50 €/ biztanleko da. Eta Orendaingo kasuan, 200 biztanle izanik, 100 eurotako laguntza ematea dagokio.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

Orendaingo Udaleko aurrekontuaren gain, 100 eurotako laguntza ematea onartzea.

## **7.- OLT TRESNA GUIFINET JABETZAKOA, UDALAK JASOA ETA TALAIARI ESKURATU IZANAREN AGIRIA SINATUAREN BERRI EMATEA.**

Orendaingo udalak, Orendaingo udalerrian internet sarea jartzeko lanak burutzeko TALAIIA enpresari esleitu zizkion.

Orendaingo udalak, lanak amaitu ondoren, zerbitzua eskaini ahal izateko, Guifinet Fundazioarekin hitzarmena sinatzen du. Hitzarmen honen eranskin gisa, "OLT" kontzentrazio burua deritzana jarri behar da, eta hitzarmen honetan oinarrituta, Guifinet Fundazioak tresna elektronikoa hau udalari eskuratu dio.

Udalak Guifinet fundazioarekin duen hitzarmeneko eranskinean honela dio:

"Guifi.net Fundazio pribatuak, hartzailea den Orendaingo udalari lagatzen dio ondorengo ekipoa " OLT kontzentrazio burua, Huawei marka duena, MA5608T eredua eta bere moduluak MPWD alimentazio iturria, lau irteera dituen MCUDI uplink mangemnet txartela eta GPON GPBD zortzi irteeratakoa, guztia 2.519,88 eurotako balioa duena, Orendaingo balio anitzeko eraikineko behe solairua kokatzeko ( Orendain 20269 Gipuzkoa), eta ondoren aipatzen diren baldintzak beteaz , zuntz optikoaren zabalkundea integratuko delarik:

1.-Hitzarmen esaten duen bezala, ekipoa hau integratuko da Orendaingo konpentsazio mahaian.

2.-Fundazioak eksklusiboki administrazio eginkizunak burutzeko berme osoa izango du (erabiltzaileen kudeaketa).

3.-Orendaingo udalak ekipoa erabilera zuzena eta bere funtzionamendu eta mantenimendu egokia egiteko konpromisua hartzen du.

Aipatzen diren arau hauetako bat haustean, Orendaingo udala, ekipoa jasotako baldintza berdinetan Fundazioari itzultzea behartzen dio."

Orendaingo udalak, 2017ko urtarrilaren 20ean jaso zuen eta Orendaingo udalak, ondoren aipatzen denari eskuratu dio, ondoren azaltzen den xehetasunaren arabera:

Hartzailea: TALAIIA, I.F.K: B-75165530

Tresnaren kokapena: Balio anitzeko behe oinean

Jasotze data: 2017-01-25

Erabilera: Orendaingo hirigunean zuntz optiko bidez internet zerbitzua eskaintzea.



Iraupena: Hitzarmenaren iraupena izango du, kasu honetan urte betekoa.  
Ekipoaren jabetza: Guifinet Fundazioa.

## **8.-TOLOSALDEKO GILTZARRIREN MANIFESTUA AZTERTU ETA ONARPENA EMATEA.**

Tolosaldeko Giltzarriaren manifestua aurkeztu da onarpena emateko.

Idazkariak jakinarazten du, manifestu hau ez duela inork sinatzen.

Manifestuaren testua ondorengo da:

“Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure esku dagoen enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatetik egikaritzea pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gainetik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarrak, eskualdeko biztanleon iritzia babesaz.

**Udal honek, herritarren ordezkari bat duen heinean, begi onez ikusten du martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako.**

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen tren Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematea:

**Nahi ahal duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?**

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batetan.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!”

Mahaikideek AHOBATEZ ERABAKI DUTE:

Bat.- Manifestuari onarpena ematea.

## **9.-2017EKO TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ERROLDA ONARTZEA.**

2017 urteko Trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda mahaiean agertu da onarpena emateko. Eta mahaikideek, ERABAKI DUTE:

1.-2017 urteko Trakzio mekanikozko ibilgailuen erroldari haserako onarpena ematea



2.- Errolda hori jendearen agerian jarriko da uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arau -tzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez, hilabeteko epean jendaurrean jarriaz .Borondatez ordaintzeko epea, 2017eko apirilaren 18tik, ekainaren 30 arte.

3.-Jendaurreko epealdia ireagan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da erabaki berririk hartu beharrik gabe.

## **10.-ORENDAIN, TRASGENIKORIK GABEKO GUNEA IZENDATZEA ONARTZEA.**

Orendaingo udaleko alkateak honako proposamen hau mahairatu du onarpena emateko:

### **“TRASGENIKORIK GABEKO GUNEA” izendatzeko UDALEKO ADIERAZPEN EREDUA**

EB (Europar Batasuna) laborantza eta elikagai transgenikoen aurka dago erabat, eta azkeneko galdetegiek diote europako hiritarren %61 ere aurka dagoela. Gaitzespen garbia da beraz, transgenikoek nekazaritza eta elikagai eredu jasangarria mehatxatzen dutelako, baita osasun publikoa ere. Kontrako eragin sozioekonomikoak sortzen ditu, gainera.

Gure lurrak eta urak kutsatzen dituen agrokimikoen eta ongari sintetikoen erabilera areagotzea, jatorri transgenikoa duten toxinak jasaten dituzten sastraka edo intsektuak agertzea edo biodibertsitatearen galera dira mehatxu hauetako batzuk.

Osasun publikoari dagokionez, ezjakintasuna dago transgenikoak zuzenean edo zeharka kontsumitzeak dakarren benetako ondorioen inguruan, epe luzera izan ditzakeen kalteak ez direlako aztertzen ari egoki. Hala ere, azterketa zientifiko independenteek erakutsi dute osasunean kaltea eragiten dutela: alergiak, elikagaietan toxiko berriak agertzea, antibiotiko patogenoak jasatea, laborategiko arratoietan ugalkortasun gaitasuna gutxitzea, eta ustekabeko eraginak.

Merkatuan sartu zenetik 20 urtera ere, laborantza transgenikoaren onurak aipatzen zituzten hitzak ez dira bete. Laborantzen etekina ez da igo, elikagaien kalitatea ere ezta hobetu, eta munduan goseteekin dagoena arazoa ere ez du konpontzen lagundu. Aitzitik, eraldatutako hazien merkaturia eta patentei lotutako produktu kimikoen merkaturia kontrolpean dituzten multinazionalen mendekotasuna handitzen doa, eta ondorioz, nekazariak aurre egin behar dizkieten gastu ekonomikoak igotzen dira.

Gainera, laborantza transgenikoa hedatzen ari den gunetan nekazaritza ekologikoak atzera egin du. Izan ere, nekazari ekologikoak babesik gabe sentitzen dira beraien laborantza genetikoki kutsatzen ari delako eta horrek galera ekonomiko handiak sortzen dizkie. Baina era berean, ohiko nekazariari ere eragiten die, beraien uzta transgenikorik gabea izan dadin nahi dutelako.

Europar Batasuna, laborantza transgenikoa baimenduta dago 1998az geroztik. Urte horretan bertan, Europar Batasunak gaur arte onartuta dagoen transgeniko bakarraren laborantza baimendu zen, MON810 arto mota. Baimen hau 2008an bukatu zen, eta birbalioztaze prozesu amaigabearen murgildurik den bitartean, gero eta ekimen sendoagoak ari dira sortzen laborantza mota hau geldiarazteko. Europar Batasunak berriki, eta lege komunitarioen babespean herrialde gehienek ezetza eman diote laborantza transgenikoari, euren nekazaritza babesteko. Alemania, Austria, Bulgaria, Kroazia, Zipre, Danimarka, Eslovenia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Poloniak, baita Valoniako erregioak (Belgika) eta Eskozia, Gales eta Ipar Irlandako erregioek (Erresuma Batua) ere zera eskatu zuten: laborantzarako baimenduta dagoen transgeniko bakarraren lurralde-bazterketa, eta baita baimenduak izateko zain dauden beste mota guztien bazterketa ere. Haez



gain beste hainbat erregio, probintziak, tokiko gobernuk eta baita hainbat ekimen pribatuk ere gauza bera egin dute beste herrialde askotan.

Espainia da transgenikoak modu esanguratsuan (asko) landatzen dituen Europar Batasuneko herrialde bakarra. 2014an 131.000 hektarea MON810 landatu ziren, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren kalkuluen arabera. Erkidego Autonomoetatik Greenpeace-era bidalitako benetako informazioetan oinarritutako azkeneko kalkuluen arabera, ez dira 80.000 hektarea baino gehiago landatu. Gainera, gure soroetan laborantza-esperimentalak ere ereiten ari dira (tabakoa, koltza, erremolatxa, etab.) ingurugiroan eragin ditzakeen kalteak galarazteko inolako neurririk hartu gabe. Espainiak, Europako laborantza transgeniko esperimentalaren %67a hartzen du. Hala ere, Espainian nekazaritza jasangarriaren aldeko neurriak ere hartzen ari dira erakunde ezberdinak. Neurri honi dagokinez Asturias, Kanariak, Euskal Herria, Balearrak eta ia 200 udalerrri transgenikorik gabeko gune izendatu dira. <<TBG izen datu diren udalerrrien adibideak>>. Gainera, jokatzekeo premia larriak bermatuta, Aragoiko Gobernuaren txosten teknikoak erakutsi du transgenikoak ez direla beharrezko, eta erabileraren inguruko "hausnarketa sakona" egitera bultzatzen du.

Kontestu honetan, gure kultura, gure ingurumena, tokiko ekonomia, kalitatezko nekazaritza ekoizpena eta biztanleen osasuna babesteko helburua aintzat hartuta, udalerriek eta erregioek beren lurraldean laborantza transgenikorik nahi duten ala ez erabakitzekeo eskubidea izan behar dute. Berebiziko garrantzia du, beraz, "Transgenikorik Gabeko Gunea" izendatzea, laborantza mota hau arreta eta irizpideen errespetuan oinarritutako printzipioak arautua izan dadin eta baita herritarren gehiengoaren borondatean oinarritua ere. Zenbat eta udalerrri gehiago batu izendapenera orduan eta errazago izanen da, estatua, laborantza hau lurralde osoan edo zati batean debekatzeko tramiteekin hastea, (UE) 2015/412 Europako zuzendaritza berriak babestuta.

Ondokoa ERABAKI DA:

1. Orendaingo udalerrria "Transgenikorik Gabeko Gunea" izendatzea baina ziurtatzea zaila egiten dela.
2. Adierazpena honakoei ezagutzera ematea:
  - a. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari.
  - b. Nekazaritza Kontseilaritzari.
  - c. Udalerrrien Mankomunitateari, senidetutako udalerriei, Diputazio probintzialei, edo ekintza honekin bat eginen lukeen beste edozein erakunderi.
  - d. Prozesu honetan ezinbestekoa da herritarrei hartutako erabakien berri ematea, batez ere nekazaritza sektorekoei: prentsaurrekoak, informazio hitzaldiak...

## **11-GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Alkateak, energiaren inguruan izandako bileraren berri azaldu du.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, arratsaldeko 20:35 etan.

Alkateak

Idazkariak